

Ordizian, **2016ko uztailaren 11n**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	EH Bildu Ordizia
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

IRABAZIko Carlos Gonzalez Astiz ere bileran izan da.

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko ekainaren 20ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.-Talde sozialistak aurkeztutako proposamena, Udal honek desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke erreserba kuota bete dezan.
- 4.- Talde sozialistak aurkeztutako proposamena, kontzentrazio deialdietarako, adierazpen instituzional, manifestu eta abarretarako premiazko protokoloa egiteko.
- 5.- Alokairu sozialaren laguntzetarako eskaerak.
- 6.- Herriko Jaietako programa eta aurrekontua.
- 7.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Udaltzaingoarentzako ibilgailua alokatzea.
 - Bigarren Merkataritza Plana.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 17,10



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko ekainaren 20ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko ekainaren 20ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 37 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 41.640,91.-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Talde sozialistak aurkeztutako proposamena, Udal honek desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko erreserba kuota bete dezan.

Proposamena

OINARRIAK

Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Errege Lege Dekretuaren 42. artikulua ezartzen du 50 langile edo gehiago dituzten enpresa publiko eta pribatuek gutxienez ehuneko bi pertsona kontratatu behar dituztela desgaitasunarekin.

Administrazio Publikoaren kasuan, erreserba kuota ehuneko bostekoa da.

Nolanahi ere, besteak beste, Udal honetako lan-harremanak arautzen dituen eta indarrean den “Ordizia Hitz” hitzarmeneko artikuluetan %7ko erreserba kuota jasotzen da.

Beste alde batetik, hainbat kudeaketa-lan burutu ostean, bozeramaile honek jakin du une honetan Udal honetan ez dagoela desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba kuota edo lanpostu horiek betetzen dituen pertsonarik.



Talde sozialistaren bozeramaile honek Gobernu Batzordeari honako hau eskatzen dio:

Aipatutako informazioa baieztatu edo ukatu dezala eta egiazkoa bada ahalik eta presatuen handienaz desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzala Udal honetako lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenean jasotako kuotaren (%7) kopuruan eta neurrian.

Dubreuil jaunak galdetu du gaur egun zenbat langile dagoen Lanpostu Zerrendan. Idazkari andreak erantzun dio esanez 62 edo 63 funtzionario direla baina datu zehatza emango diola ehuneko 7a zein den jakiteko.

Datua jakinaraziko zaio.



4.- Talde sozialistak aurkeztutako proposamena, kontzentrazio deialdietarako, adierazpen instituzional, manifestu eta abarretarako premiazko protokoloa egiteko.

OINARRIAK

Atzo, 40 pertsonen bizia galdu zuten eta berrehun pertsonatik gora zauritu ziren Turkiako Atatürk nazioarteko aireportuko atentatuaren ondorioz, nazioarteko komunitateak, estatuak, autonomia-erkidegoak, udalerriak, mota guztietako erakundeak eta abar... publikoki adierazi zuten beraien gaitzespena, familia eta lagunekiko elkartasuna eta herri turkiarrarekiko elkartasuna.

EUDELEK atzo 11:58an jakinarazi zion Udal honi posta elektronikoz Udalei egiten zien gonbidapena, ekainaren 30ean, osteguna, eguerdiko 12:00etan 5 minutuko kontzentrazio isilak egiteko udaletxe parean, biktimekiko eta euren senitartekiko elkartasuna eta babesa adierazteko. Gonbidapen honen bidez EUDELEK nahi duena da euskal udalerriek Istanbul hiriri, Turkiako herriari, kaltetutako pertsonen eta euren senitartekoen une zail hauetan hurbiltasunezko sentimendua eta elkartasunezko besarkada bat bidaltzea. Eta Talde Sozialistak honekin bat egiten du eta ziur dago ordiziar askok ere bat egiten dutela atentatuaren gaitzespenean eta biktimekiko, beraien senitartekiko, lagunekiko eta orokorrean herri turkiarrarekiko elkartasuna eta atentatuaren gaitzespena publikoki adierazteko behararekin.

Hala ere, (eta ez da lehenengo aldia) lerro hauek idazten dituenak prentsaren bidez izan du honen berri, kasu honetan atzo arratsaldean. Gertaera honek talde politiko honen aukerak murrizten ditu zalantzarik gabe eta baita Udalarenak ere horrelako egoeratan, eta adierazitakoak gertatzen direnean EUDELEK bidaltzen dituen eskaerak eta gonbidapenak betetzeko zailtasunak izaten dira.

Esan dudan moduan, horrelakoak behin baino gehiagotan gertatu dira eta batzuetan ordiziarrek ez dute gertaera hauekiko beraien iritzia, atsekabea, gaitzespena adierazteko aukerarik izan eta gertaera horiekiko beraien ordezkari politikoez zein iritzi duten jakiteko aukera ere ez dute.

Talde Sozialistaren bozeramaile honek Gobernu Batzordeari eskatzen dio azaldutako ideien inguruko gogoeta egiteko eta erantzun instituzional bat emateko denbora mugatua duten eta premiazko jardunak behar dituzten zenbait egoerari erantzuna emateko jardun "protokolo" bat diseinatzeko.

Dubreuil jn.

Protokolo honen helburua azaldu du. Adierazpen, komunikatu edo manifestu bidez erantzun azkarra behar izaten duten gertaerak izaten dira sarritan eta itxaronda edo talde politikoen kideei deialdia bidalita komunikatuak edo adierazpenak zentzua galtzen du.

Dubreuil jaunak protokoloaren zirriborro bat prestatuko du.



5.- Alokairu sozialaren laguntzetarako eskaerak.

Idazkari andrea

Jakinarazi du aztertu direla "etxebizitzaren alokairurako laguntza" programaren eskaerak. Guztira 15 eskaera aurkeztu dira, horietatik 2 kanpoan geratuko dira ez dutelako erroldaren baldintza betetzen.

Adierazi du Oinarriek gehienez ordaintzen den alokairuaren %50a ezartzen dutela eta aldi berean 250 € gehienez. Baina ez da diru-laguntzetarako tarte desberdinik ezarri ezta diru-laguntza hauek esleitzeko irizpiderik ere. Beharrezkoa izango da Lantalde edo Batzorderen bat eratzea eta osaketa zehatu egin beharko da esleipenerako irizpideak ezartzeko.

Horrekin batera, Idazkari andreak adierazi du eskatzaileek 2014 ekitaldiari dagozkion diru-sarrerak aurkeztu behar dituztela baina PFEZ aurkezten ez den kasuetan eskatzaileek 2015 ekitaldiari dagozkion diru-sarrerak aurkeztu dituzte.

Zehaztu behar litzateke kasu horretan ere 2014ko diru-sarrerak kontuan izan behar diren. Batzordeko kideek erabaki dute kontuan izan beharreko diru-sarrerak kasu guztietan 2014 ekitaldiari dagozkionak izan behar dutela.

Horrekin batera zehaztu behar da (oinarriek ez dutelako zehazten) alokairurako diru-laguntzaren urtebeteko epealdia 2016ko ekitaldi naturala (urtarriletik abendura) izango den edo ekitaldi naturalarekin bat ez datozen epealdiak diruz lagundu daitezkeen.



Idazkariak alokairu kontratuei buruzko kasu zehatzen inguruko informazioa jasoko du ondoren erabakia hartu ahal izateko.



6.- Herriko Jaietako programa eta aurrekontua.

EKITALDIA	2016KO AURREKONTUA
Azalpena	
Villafranca Proba	6.662,00 €
Boxing Ciclo Club	1.200,00 €
Haurren eguna/ Katekesia	3.000,00 €
Matutina	1.700,00 €
Pala partidak	400,00 €
Jai Egitarauak (5000)	860,00 €
Megafonia Errondaila	726,00 €
Errondaila	750,00 €
Tanborrada	2.000,00 €
Azari	600,00 €
Zaldiak	2.400,00 €
Egileak	2.000,00 €
Buletinak	450,00 €
Banda	8.500,00 €
Karrozak	4.650,00 €
Txokolatada	450,00 €
Koadrilak	8.100,00 €
Iberdrola	400,00 €
Irungo banda (banda)	3.300,00 €
Bus banda Irun	560,00 €
Bazkaria Banda Irun 30 x 60	1.800,00 €
Txaranga Matutina	1.280,00 €
Pilota	400,00 €
Santanazaleak Eskudantza	1.900,00 €
Erraldoiak(+ trikitixak)	1.900,00 €
Bigantxak Plaza	8.000,00 €
Megafonia orokorrean- askotarikoak	2.000,00 €
Burrunbazale Txaranga	2.200,00 €
Haur eguna- haurren diskoteka	484,00 €
Kantineren aurkezpena	800,00 €
24 Deabru Beltzak	2.904,00 €
25 - TRIO VERACRUZ	1.452,00 €
25 arratsaldea ALARDE	1.200,00 €
25 arratsaldean saloiko dantzak megafonia	750,00 €



25 saloi dantzak- laguntza	650,00 €
26ª MATUTINA Dj.	600,00 €
26 arratsalde gaua Egan	2.420,00 €
26 arratsaldea Trapu Zaharra	2.518,00 €
27 GAUA Jamaica show	4.598,00 €
27 berbena AZABACHE	1.452,00 €
26a Txaranja	800,00 €
Disko-jaia 25+27	1.300,00 €
beste batzuk	2.000,00 €
GUZTIRA	92.116,00 €
AURREKONTUA 2016	93.000,00 €
Erabilgarria	884,00 €

Aurrekontua eta programa aho batez onartu dira.



7.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- Herriko Jaietan zehar sexu erasoen eta indarkeria sexistaren aurka egindako Protokoloaren berri eman du Dubreuil jaunak (informazio-jaima, pegatinak eta abar).

Protokoloa ondorengoek prestatu dute: Berdintasun Batzordeak, Berdintasun Sailak, Udaltzaingoak, Kimetzek, Txosnek... eta abar.

.....

.- 6.000 €tik beherako fakturak.

Oniritzia eman zaie.

.....

.- Herriko Festetarako prestatu den Mendekotasunaren inguruko Protokoloa.

Dubreuil jaunak protokoloa azaldu du.

.....

.-Sukia Andrea: Jaietako Mahaian parte hartzera ez dituzte deitu, hori dela eta, bere desadostasuna adierazi du.

Jaietako hainbat gairi buruz koadrilei aurkeztu zitzaizen informazio "power point"arekin erabat ados dago, baina kasuren batean araudia betetzen ez bada, kontsekuenteak izan eta dagozkion isunak ipini behar direla uste du.

.....



- Eguren jaunak "Ramadana" ospatu zen galdetu du.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez azkenean Mezkitan (Liburutegi Islamikoan) ospatu zutela.

Udalari dagokionez, bere ustez, Udalak udal instalazioak erabiltzeko aukera eman behar du baina beti Legea errespetatzen bada.

.....

- Udaltzaingoarentzako ibilgailua alokatzea.

"Renting" eran gasezko ibilgailua eskuratzea proposatzen da, hilean 200 euro baino pixka bat gehiago ordainduta, kontsumo oso baxuarekin eta kopuru horretan mantenua sartuta.

Gasezko ibilgailua "rentig" eran eskuratzea eta ibilgailu hibridoa zerbitzuz kanpo uztea onartu da mantenuan gastu handia baitu (urte asko ditu).



8.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.